

# ARGAZKI LEHIAKETA

## #ETXEAN ETA EUSKARAZ OINARRIAK

### 1. GAIA:

Badira aukerak euskaraz irakurtzeko, euskaraz jolasteko, euskaraz kirola egiteko... Argazkian, bi egoera hauek uztartu beharko dituzu: etxean zaudela eta euskaraz ari zarela.

Gaia: "Etxean eta euskaraz"

### 2. LEHIAKIDEAK:

Lehiaketa honetan Aramaion jaiotako edo bertan bizi den edozein pertsonak har dezake parte. Pertsona bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Sari bakarra egongo da. Gainerako partaideen artean bi oparien zozketa egindo da.

### 3. BALDINTZAK:

- Lehenago argitaratu gabeak eta saritu gabekoak izan beharko dira.
- Argazkietan pertsonaren lehen planoak baldin badira, pertsona horren baimena aurkeztu beharko da. (umeak badira, gurasoen baimena).

### 4. AURKEZPEN MODUA ETA DATA:

Lanak emailaz bidali beharko dira helbide honetara: [aramaiokoudalaeu@gmail.com](mailto:aramaiokoudalaeu@gmail.com) argazkiaren izenburuarekin. Argazkiarekin batera, egilearen datuak bidali beharko dira (izena-abizenak, jaiotze data, telefonoa eta helbide elektronikoa).

Epea: lanak entregatzeko epea maiatzaren 4an itxiko da.

Argazkien jabetza: Udaleko argazki artxiboa osatzeko gordeko dira eta beharraren arabera erabili ahal izango ditu Aramaioko Udalak, beti ere egilearen izen-abizena adieraziz.

### 5. SARIAK:

Lehen postuan geratzen dena. Saria: herriko produktuekin otarra.

Gainerako partaideen artean zozketa egingo da. Bi sari banatuko dira: bakoitzak gazta bat eskuratuko du.

### 6. EPAIMAHAIA:

Epaimahaia, Euskara eta Kultura Batzordeetako kideek eta batzordeburuak egoki ikusten dituzten pertsonak osatuko dute.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEAK OINARRI HAUEK ONARTZEA SUPOSATZEN DU. ARGAZKI GUZTIAK IKUSGAI JARRIKO DIRA ARAMAIOKO UDALAK INTERNETEN DUEN FLICKR KONTUAN. ETA EGOKI IKUSIZ GERO, BESTE KANAL BATZUETATIK ERE ZABALDUKO DIRA.

